

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

AÑUKO ADMINISTRAZIO BATZARRA

Lurzatiak lagatzea Virgen de Estibaliz VI-10.051 ehiza barrutirako

Añua, Arbulu, Zerio, Burgelu, Gazeta, Ilarratza, Jungitu, Matauku eta Oreitiako administrazio batzarrek Virgen de Estibaliz VI-10.051 ehiza barrutia sortzea erabaki dute, zeinaren titularra Añuko Administrazio Batzarra baita, jabe taldearen ordezkartzan.

Kontuan hartuta ehiza barruti hori sortzean barrutirako ezarritako eremuaren barruko lurzati guztiak sartuko direla, titulartasun pribatukoak zein publikokoak izan, iragarki honen bidez horren berri ematen da, eragindako lursailen jabeek Euskal Autonomia Erkidegoko Ehizari buruzko martxoaren 17ko 2/2011 Legearen 21. artikuluan aipatzen den baimena eman ahal izan dezaten. Iragarki hau ALHAOn argitaratzen denetik aurrera hamabost egun balioduneko epean administrazio batzarraren aurrean kontrakoa adierazteko idazkirik aurkezten ez dutenek isilbidezko baimena eman dutela ulertuko da, eta administrazio batzarrek baimena izango dute ezarritako epean desadostasunik azaldu ez duten jabeen lurzati edo finka guztiak ehiza barrutian sartzeko.

Lurzati publikoen barruan onura publikoko mendi hauek daude (OPko mendiak):

- OPko 437 mendia, Arterana, Burgeluko Administrazio Batzarrarena.
 - OPko 439 mendia, El Coteao, Añuko Administrazio Batzarrarena.
 - OPko 440 mendia, Dehesa de Elburgo, Burgeluko Administrazio Batzarrarena.
 - OPko 442 mendia, Ilazarri, Arbulu, Argomaiz eta Oreitiako Administrazio Batzarrarena.
 - OPko 445 mendia, Quilchano, Argomaizko eta Burgeluko Administrazio Batzarrarena.
 - OPko 449 mendia, Zabaleta, Argomaizko, Burgeluko eta Mendixurko Administrazio Batzarrarena.
 - OPko 706 mendia, Cerralde, Mataukuko Administrazio Batzarrarena.
- Guztiak jakin dezaten eta dagozkion ondorioak izan ditzan argitaratzen da.

Añua, 2024ko uztailaren 16a

Lehendakaria
RUBÉN BRAVO